

Hemendik aurrera, Iruñeko estazio meteorologikoak Labriten bastioian

Kokaleku berriari esker, hobeki eginen dira neurketa meteorologikoak, eraikin eta zuhaitz gutxiago baitaude

2010eko uztailaren 23a, ostirala

Iruñeko parte zaharreko bi estazio meteorologikoak, orain arte San Bartolome gotorlekuan (Media Luna parkean) eta Larrabide kiroldegian, kokaleku berrira eraman dira berriki, Labriten bastioira hain zuzen, eta, beraz, bastioia hori izanen da hemendik aurrera Iruñeko Begiratoki Meteorologikoa. Tokia aurreko kokalekuak baino libreago dago eraikinez eta arbolez, eta, beraz, hobeki eginen dira neurketa meteorologikoak.

Aipatutako bi estazioak –bata eskuzkoa eta bestea automatikoa– Nafarroako Gobernuaren estazio meteorologikoen sarekoak dira. Sarean, guztira, 151 begiratoki daude, haietatik 88 eskuz funtzionatzen dutenak eta 63 automatikoak, eta haietatik 19 sarera lotuta daude datuak jaso ahala bidaltzeko.

Iruñeko eskuzko estazioa izan zen Nafarroan paratu zen lehenbizikoa. 1880an jarri zuten, gaur egun NAPIren eraikina deneko terrazan (garai bateko Batxilergo Institutuan), baina, 1993an, eraikina berritzeko lanak zirela-eta, San Bartolome gotorlekura eraman zuten; izan ere, hurbil zegoen eta orientazioa antzekoa zeukan, eta, horrela, datuen segida ez zen eten.

Baina, inguruko arbolak handitu egin dira eta harresiaren interpretazio zentroa jartzeko berritze lanek beste nonbait jartzea komeni zela ikusarazi zuten.

Aukeratuko tokia Labriten bastioia izan da. Lehengoaren parean dago eta, beraz, orientazio eta egoera orokor berberak ditu, eta horrek bide emanen du, noski, inongo etenik gabe datuak jasotzen segitzeko.

Iruñeko estazio automatikoa, bestalde, 1997an jarri zen Larrabide kiroldegian, zenbait eraikinetatik hurbil. Eskuzko estazioa lekuz aldatu behar zela aprobetxatuta, automatikoa ere leku berera eraman da, Iruñeko Begiratoki Meteorologikoa sortzeko asmoz. Instalazioan Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren Zerbitzuak hartu dute parte.

Estazio automatikoen eta eskuzkoen artean desberdintasun bat da nagusia: automatikoan bildutako datuak modu automatizatuan bidaltzen dira (inork esku hartu gabe) eta eskuzkoan begirale edo laguntzaileak daude, urteko egun guzti-guztietan datuak biltzeko: udazkenean eta neguan goizeko 9:00etan eta udaberrian eta udan goizeko 10:00etan. Bildutako datuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentura bidaltzen dira eta, gero, bildu ondoren, Estatuko Meteorologia Agentziara (AEMET).

Estazio automatikoen informazio gehiago ematen dute (haietako batzuek 10 minututik behin) eta parametro gehiago neurtzen dituzte: tenperaturaz eta euriaz gainera, hezetasun erlatiboa, haizea, presio atmosferikoa, eguzkialdia eta erradiazio orokorra ere neurtzen dituzte.

Foru erkidegoko estazioetan bildutako datuak Nafarroako Gobernuaren meteorologiaren eta klimatologiaren webgunean kontsultatzen ahal dira (<http://meteo.navarra.es>). 19 begiratokitako datuak, gainera, jaso ahala bidaltzen dira eta, beraz, informazioa unean unekoa da. Webgunean ikusgai daude, bestetik, eguraldiaren iragarpena, fitxak, mapak eta datu historikoen grafikoak.